

**EAEKO TXERTAKETA-ESKULIBURUA EGUNERATZEA, 2020**

Osasun Sailak, Txertaketetarako Euskadiko Aholku Batzordearen gomendioei jarraituz, honako aldaketa hauek egin ditu Euskadiko Txertaketa-eskuliburuan:

3. KAPITULUA: UMEEN TXERTAKETA-EGUTEGIA. PERTSONA HELDU OSASUNTSUEN TXERTAKETA-EGUTEGIA**3.1. Umeen-txertaketa-egutegia. Euskadi 2020**

- C meningokokoaren aurkako txertoaren ordeztu, Men ACWY laubalioko txertoa jartzea 12 urterekin.

3.2. Pertsona heldu osasuntsuen txertaketa-egutegia

- Txerto hirukoitz birikoaren 2 dosi osatzea gomendatzen da, 1970 eta 1980 bitartean jaiotako kalteberetan.
- Poliomieltisaren aurkako txertoa jartzea, poliobirusa (basabirusa edo txertoaren ondoriozkoa) daukaten herrialdeetatik datozenen soilik.
- Aurretik C meningokokoaren aurkako txertorik jaso ez duten 26 urtez beherakoei ACWY meningokokoaren aurkako txertoaren dosi bat jartzea.

4. KAPITULUA: TXERTOAK

4.8. B hepatitisaren aurkako txertoa agintzen zaien arrisku-taldeetan txertaketa horrek izan duen erantzuna balioesteko algoritmoa sartu da.

6. KAPITULUA: PEDIATRIA-ADINEAN DAUDEN ARRISKU TALDEEN TXERTAKETA.**6.1.1. Haur goiztiarren txertaketa**

- Aldatu egin dira pneumokokoaren aurkako eta seibalioko txertoaren (DTPa-VPI-VHB+Hib) jarraibideak. Hemendik aurrera 2+1 izango da.

6.1.2. Txertoak immunoeskasia dutenentzat

- Immunoeskasia guztietan, pneumokokoaren aurkako pauta sekuentzialak txerto polisakaridoaren 2 dosi gomendatzen ditu, gutxienez 5 urteko tarte batetik bestera.

6.1.2.1. Immunoeskasia primarioak

- Immunoeskasia humoral partzialean edo fagozito-eskasia edo Di George partzial, Ataxia telangiectasia, Wiscott-Aldrich eta Whim sindromeetan, hurrei papilomabirusaren aurkako txertoa jartzea gomendatzen da, jarraibide honekin: 0, 2, 6 hilabete.

6.1.2.2. GIB infekzioa:

- ACWY meningokokoaren aurkako txertaketa:

- Urtebete baino gutxiagokoetan, C meningokokoaren aurkako txertoaren orde, laubalioko ACWY txertoa sartu da, eta dosi osagarri bat emango zaie 5 urterekin.
 - Urtebete baino gehiagokoentzat, bi dosi, gutxienez 2 hilabeteko tarte utzita batetik bestera, eta oroitzapeneko beste dosi bat, azkenekotik 5 urtera.
 - 6 urtetik aurrera, dosi 1.
 - Haurrei papilomabirusaren aurkako txertoa jartzea gomendatzen da.
- 6.1.2.7 Asplenia anatomikoa edo funtzionala duten haurren txertaketa
- Aspleniadun jaioberrien egutegian aldatu egin da meningokokoaren aurkako pauta; dosi guztietan laubalioko ACWY jarriko da, pauta honekin: 2, 4, 12 hilabete, 6 urte, 12 urte.
- 6.1.3. Gaixotasun kronikoak dituzten haurren txertaketa
- Haur-egutegian, papilomabirusaren aurkako txertaketa-pauta 3 dosikoa da haur arriskudunei.
 - Gaixotasun kroniko guztietan, 2015 baino lehen jaiotakoei barizelaren aurkako txertoa jartzea gomendatzen da, 10 urtera arte itxaron beharrik gabe.
 - Atal berriak sartu dira: hesteetako gaixotasun inflamatorioa, zeliakia eta Down sindromea.
- 6.1.3.1. Giltzurruneko gutxiegitasun kronikoa. Hemodialisia. Sindrome nefrotikoa
- Immunoeskasia baldin badago, pneumokokoaren aurkako pauta sekuentziala gomendatzen da.

7. KAPITULUA: ARRISKUAN DAUDEN HELDUAK TXERTATZEA

7.1.1. IMMUNOESKASIAK

- Immunoeskasia guztietan, pneumokokoaren aurkako pauta sekuentzialak txerto polisakaridoaren 2 dosi gomendatzen ditu, gutxienez 5 urteko tarte utzita batetik bestera.
- 7.1.1.1. Immunoeskasia primarioak
- Immunoeskasia humoral partzialean edo fagozito-eskasia edo Di George partzial, Ataxia telangiektasia, Wiscott-Aldrich eta Whim sindromeetan papilomabirusaren aurkako txertoa jartzea gomendatzen da 45 urtera bitarteko gizon-emakumeetan.
 - ACWY meningokokoaren aurkako txertaketa agindu zaien immunodepresiodunei dosi osagarria jartzea gomendatzen da, azken dositik 5 urtera.
- 7.1.1.2. GIB infekzioa
- GPB txertoa jartzea gomendatzen da, papilomabirusaren aurka, 45 urtera arteko gizon-emakumei, eta A hepatitisaren aurkako txertoa ere bai.
- 7.1.1.5. Organo solidoaren transplantzea (OST)
- Organo solidoa transplantatu zaienentzat, txertaketa-pautadun taula bat ere badago.
- 7.1.1.6. Zelula ama hematopoietikoen transplantzea (ZHT)
- Papilomabirusaren aurkako txertoa jartzea, 45 urtera arteko gizon-emakumei.
 - Edozein adinetan seibalioko txertoa erabiltzea.
 - Txertaketa-pautadun taula era badago.

7.1.2.4. Gibleko gaixotasun kronikoa. Alkoholismo kronikoa. Zirrosia



- Zirrosi eta alkoholismo kronikoarekin gomendatzen da:
 - B hepatitisaren aurkako txertoa jartzea. B hepatitisaren aurkako txertaketaren erantzuna baloratzeko algoritmoari jarraituko zaio.
 - A hepatitisaren aurkako txertoa jartzea.
 - Pneumokokoaren aurkako pauta sekuentziala.

7.1.3. BESTE ARRISKU BATZUK

7.1.3.2. Down sindromea:

- Pneumokokoaren aurkako pauta sekuentziala gomendatzen da.

7.1.3.5. Aurreko gaixotasun meningokoziko inbaditzailea.

- B meningokokoaren eta ACWY meningokokoaren aurkako txertoa jartzea gomendatzen da.

7.2.1. BESTE EGOERA BEREZI BATZUK

- Prostituzio-egoeretan, Papilomabirusaren aurkako txertoa jartzea gomendatzen da 45 urtera arteko gizon-emakumeei, eta B hepatitisaren eta A hepatitisaren aurkako txertoa ere bai.
- Gizonezkoekin sexua edukitzen duten gizonen kasuan: papilomabirusaren aurkako txertoa jartzea gomendatzen da 45 urtera arteko gizon-emakumeei, eta B hepatitisaren eta A hepatitisaren aurkako txertoa ere bai.

7.2.3. LANEKO ARRISKUA

- Lanpostu bakoitzerako txertaketa gomendatzea eta txerto horiek ematea enpresaren kargu doa. Ez dira diru publikoz finantzatzen.

8. KAPITULUA: TXERTORIK HARTU EZ DUTEN PERTSONEN EDO TXERTAKETA OSATU GABE DUTEN PERTSONEN TXERTAKETA-EGUTEGIA EGOKITZEA.

- Seibalioko txertoa (DTPa-VPI-VHB+Hib) erabil daiteke 7 urtera arte.
- Polibirusa dabilen herrialdeetatik datozen atzerriar txertatu gabeetan, poliomieltisaren aurkako txertoa jartzea aginduko da.
- C meningokokoaren aurkako txertorik hartu ez duten 26 urtez beherakoetan laubaliadun ACWY txertoa aginduko da.

Horiz markatu dira eskuliburuan aldatu diren zatiak.

Aldaketa guztiak lineako bertsioan bakarrik egin dira; Osasun Sailaren web-orrian duzue eskuragarri eta esteka honetatik sar zaitezkezte bertara:

<http://www.euskadi.eus/informazioa/txertaketen-eskuliburura/web01-a2gaixo/eu/>

Vitoria-Gasteiz, 2020ko otsailaren 17a

Osasun Publikoaren eta Adikzioen Zuzendaritza.

OSASUN SAILA